

« [Koadroak](#) | [Irakurri lehenik eta leitu beharrekoak ondoren!](#) »

**Dantzaldia** / **Irene Nemirovski** (*Eider Rodriguez*) / Txalaparta, 2006

Grinak dantzan 🗨️ Inma Errea / *Diario de Noticias*, 2006-07-30

Literaturak bizi garen toki edota garaietatik urrun eramaten ahal gaitu, bizi ezin izan ditugun denboretara garraiatu, bestela ezagutzerik ere izanen ez genukeen giroetara lekualdatu. Hori du literaturak, hori eta, batera, inoiz bizi izan gabe ere besteen —pertsonaien— sentipenak ezaguntzat jo ahal izatea, eta gure baitan birsortu, sortzaile batek inoiz —sarri guregandik urrun, hala denboran nola espazioan— irudikatu zuen kontakizunean murgilduta.

Irene Nemirovski idazlea guregandik urrun dago denboran, heriotzak jendea aldentzen duen heinean urrun, eta bizi bitartean hainbat alditan guregandik, euskaldunongandik, hurbil egon bazen ere —Hendaian, Miarritzen edota Donibane Loitzunen, euskaraz mintzatzera ere iritsi zelarik—, urrun jaio zen, Kieven, eta urrun samar, Parisen, idatzi zuen orain gure hurbileko beste idazle batek, Eider Rodriguezek, euskaratu —hots, gureganatu— duen nobela, *Dantzaldia* hau.

Nemirovskik jakin zuen, asmatu, kontakizun konkretu baten bidez jendearen sentimenak eta pertsonen arteko harremanak osagai dituen putzu sakonetik ur biziak ateratzen, eta Rodriguezek asmatu du ur horiek guregana fresko ekartzen.

Emitza nobela labur eta trinko hau dugu, giro jakin batean bizi den neska nerabe konkretu baten bizipen unibertsalak eta jendarteko konbentzionalismo arruntek ezkututzen dituzten bizi-gabeziak kontakizun dituen.

Antoinette protagonistak, 14 urteko nerabea den aldetik, nerabetasunaren ezaugarri unibertsalak erakusten dizkigu, muturrekoak izanagatik ere zorrotzak, egiazkoak. Antoinetteren sentimendu eta pentsuen ifrentzu, guraso aberastu berrien jokabidea deskribatzen digu idazleak, eta haien azalakerian, Antoinetteren bezain konprenigarri agertzen zaizkigu Kampf jaun-andreen arrazoi eta moldeak. Zorigaitza, kasu honetan bezala gizon-emakumeek beraiek sortua izanagatik ere, beti baita ulergarri. Nemirovskik amorruez, mendeku-gogoz, zorionik ezaz edota inguruko zorigaitza abiaburu duten poz txiki kasik aitorrezinez ehundutako tapiza erakusten digu, eta itxurakerietan oinarritutako mundua deskribatuz gogoeta sakonetan murgilarazten gaitu irakurleok. Gizarte-mailen inguruko gogoetetan, kasu, edo mendekutik errukira doan tarte harrigarri laburrari buruzko hausnarketetan.

Nemirovskik jendarteko itxuretan sakontzen du, irudia jainko duen jendartea zorrotz diseztonatzen du, azaleko mundu bat erakutsi, eta aldi berean pertsonen baitako bulkadak, joerak eta jaidurak azaleratzen ditu, jendarteko mundu formalaren parean jendearen baitako grina ezkutuenak paratzen ditu, irakurleek aldera ditzagun edo.

Nemirovskik, naziak gazte —40 urte bete gabe— hil bazuten ere, asko utzi zuen idatzia, hamahiru nobela, besteak beste. Horien artean, idazlea hil eta askoz geroago, 2004an, *Suite française* izenburuarekin argitaratutako eleberria, alabek nobela zela jakin ez eta urtetan irakurtzera ausartu ez ziren eskuizkribua, hala idazlea bera nola hark egindako lanak mundu osoan ezagunak egin dituen liburua. Bada nor *Suite française* hori ere euskaratzeko eskatu duena. Hori baitu literaturak. Asetzeko gauza denean, asegaitz bilakatzen gaitu.